


TOKIKO PRODUKTUAREN 6. ASTEA

# PINTURA-LEHIAKETA

www.semanadelproductolocal.com

**Aurkezteko epea: urriaren 4a artekoa**

ANTOLATZAILEAK

Reyno Gourmet — Calidad Navarra Nafar Kalitatea
Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
Alimentos Artesanos Navarra
eko logikoak
bizilur

LAGUNTZAILEAK

Bibliotecas Públicas de Navarra / Nafarroako Liburutegi Publikoak
Filmoteca de Navarra / Nafarroako Filmoteka
Nuevo Casino

TOKIKO PRODUKTUAREN 6. ASTEA

# PINTURA-LEHIAKETA

## PARTE-HARTZAILEAK

Nafarroan bizi diren eta **6 eta 18 urte artean dituzten neska-mutikoak eta gazteak**.

## IZENA EMATEA

Parte hartzea doakoa da. Izena emateko formularioa bete beharko da, eta margolanarekin batera eman beharko da edo pintura-akademian edo jatorrizkoak emateko guneetako batean. **Izena emateko epea urriaren 4an amaituko da, astelehena.**

## EZAUGARRIAK

Gai nagusiak Nafarroako tokiko produktuan jarri beharko du arreta: gazta, ardoa, patxarana, olioa, orburua, zainzuria, piperra, aratxea, arkumea... Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, eta teknika librea izango da. **Mihisearen neurria 41 x 33 cm izango da (6. zenbakia, figura).**

## KATEGORIAK

Bi kategoria izango dira, eta bakoitzak bere sariak izango ditu:

- Txikiak: 6 eta 12 urte artekoak.
- Handiak: 13 eta 18 urte artekoak.

## SARIAK

Handien kategorian, lehen sariaren balioa 300 euro izango da, eta accesitarena, 125 euro. Txikien kategorian, berriz, lehen sariaren balioa 150 euro izango da, eta accesitarena, 75 euro. Sari guztiak txartel moduan emango dira, margolaritzako materialarekin trukatzeko. Gainera, irabazleen akademiek Reyno Gourmet produktuen sorta bat jasoko dute. **Sariak urriaren 12an banatuko dira, asteartea, 11:30ean, Nuevo Casino Principalen.**

## EPAIMAHAIA

Pedro Salaberri nafar margolariak, Reyno Gourmeteko kide batek eta Iruñeko Udalaren ordezkari batek eratuko dute epaimahaia.

## ESKUBIDEAK

Lan irabazleak eta haiek erreproduzitzeko eskubideak INTIA, Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. sozietatearenak izatera igaroko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea eta epaimahaiaren erabakiekin ados egotea. Saririk eskuratu ez duten egileek urriaren 13a eta 15a artean, asteazkenetik ostiralera, jaso ahal izango dituzte beren margolanak, 10:00etaik 14:00etara, INTIAren bulegoetan (Serapio Huici etorbidea, 22, 31610 Atarrabia). Hartara, ez badira hartzen egun horietan, ulertuko da uko egiten zaiola hartzeari eta INTIAk libreki erabili ahal izango ditu, inolako motako erreklamazio edo kalte-ordain eskubiderik aitortu gabe.

www.semanadelproductolocal.com

# Jatorrizko lanak emateko guneak

**COMPAÑÍA DE OFICIOS**
Espacio creativo Ana Pagola
San Fermin k. 61
Iruña – 31003

**LA MALETA DEL CARACOL**
Paulino Caballero k. 49
Iruña – 31006

**LAURA GONZÁLEZ ACADEMIA DE ARTE**
Crispin Pintorearen k. 4
Iruña – 31008

**ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA BARAÑÁIN**
Iruñeko etorb. 29
Iruña – 31009

**ACADEMIA DE PINTURA AMAIA GARCÍA**
Maiteminduen Parkea 4
Iruña – 31014

**ACADEMIA DE ARTE GRAFITO**
Altzuza Kontzejuaren k. 12
Iruña – 31016

**DAN ISTURIZ ACADEMIA DE PINTURA**
San Blas k. 8
Burlata – 31600

**EDARE**
Reino de Navarra etorb. 26
Sarriguren – 31621

**ESTUDIO ANA CARCAVILLA**
Fuente Canónigos k.
Tutera – 31500

**TALLER DE PINTURA DE DIANA INIESTA**
Berroalde 7
Erratzu – 31714

**ACADEMIA ARTE MONTSE PALACIOS**
La Plana k. 26
Tafalla – 31300